

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAK 2016ko AZAROAREN 29an EGINDAKO BILERAREN AKTA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako egunean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, Presidente jaunak aldez aurretik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

KONTSEILUBURUA:
Danel Bringas Egilior jn.

KONTSEILUKO KIDEAK:
Ivan López Arenas jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Maitane Luna Vizcaino and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.
Imanol Urtiaga Palacios jn., Bildu Udal Taldea.
Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Moran Arostegi jn.
Kontu-hartzaile eskuordetua: M^a Angeles Camardiel and.
Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.
Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1.- 2016ko IRAILAREN 27ko BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Epigrafean adierazitako eguneko akta aho batez onartu da.

2.- KONTSEILUBURUAREN GAIK

Herriko musika-bandak

Bringas Egilior jaunak azaldu du ekaineko Osoko Bilkuran mozio bat aurkeztu zela Karmengo jaietan herriko rock taldeek jo zezaten eskatuz eta 2017an horretarako zein toki izan zitekeen egokia ere aipatu zela. Horren ostean, kontseilukideei esan zitzaizen musika-bandek beraiek eskatu zutela oholtza nagusian jotzea, eta azkenean, dena lotzeke geratu zen.

Urtiaga Palacios jaunak esan du beharbada banden planteamendua ez dela egokia eta gaineratu du egindako proposamenak ez duela inondik inora elektoralismoarekin zerikusirik. Horrez gain, adierazi du egia dela herriko musika-bandek proposamen bat egin dutela Osoko Bilkuran aurkeztutako moziotik oso alderatuta, baina aurreko Kontseiluan planteatu zen elkarrekin

zerbait adostu zezaketela eta agian ez zutela ezinbestez oholza nagusian jo behar. Urtiaga Palacios jaunak uste du banden plataforma eratzen denean adostasunera hel daitezkeela.

Bringas Egilior jaunak jakinarazi du taldekideren batekin hitz egin duela eta lokal bat utzi zaiela plataforma eratzeko bildu daitezzen. Horrela bada, plataforma eratuta dutenean bilera bateratua egingo zutela esan zitzaion. Hala eta guztiz ere, Bringas Egilior jaunak esan du nahiago lukeela baleko solaskide bat balego, denek ez dutelako berdin pentsatzen. Horrez gain, adierazi du oholza nagusian jotzeko gaia ez ezik, aipatutako bilera horretan batzorde parekidea sortzea ere aipatu zela, besteak beste, honen esku gera zedin nork joko duen eta dena delako taldeei ordaintzeko aukeraren inguruko erabakia. Azken hau ez da kudeatzeko erraza.

Urkiaga Alberdi jaunak esan du gehiegi azpimarratzen ari dela taldeek oholza nagusian jo nahi dutelako kontu hori, baina mozioan beste puntu batzuk ere bazeudela, esate baterako batzorde parekideari eta musikariei ordaintzeari buruzkoak. Bestalde, desadostasuna adierazi nahi izan du ekaineko Osoko Bilkura hartan mozioa galde-eskeetan izapidetu zelako, atzeratu izan balitz, konponbide hobea eman zekiokelako planteatutako guztiari, ez bakarrik parte bati.

Bringas Egilior jaunak adierazi du puntu bi horiek oholza nagusian jotzetik eratorritakoak direla. Batzorde parekidea eratzeari buruz, berriz, esan du ez duela bertan sartu nahi, hor erabaki behar delako, besteak beste, nork joko duen eta nork ez, zein ekipo jarri behar den, nola ordaindu... hau da, jorratu nahi ez dituen gai teknikoak. Gaineratu du kontuan hartu behar dela herri honetan mota desberdinetako musikariak daudela: flauta-taldeak, abesbatzak, laukoteak, trikitilariak... eta horiek ere planteamendu bera egin lezaketela.

Urkiaga Alberdi jaunak jakinarazi du musikariek beste estatus bat dutela, zerga-kontuetan bestela funtzionatzen dutela eta beharbada, ez dela horren zaila.

Bringas Egilior jaunak gogorarazi du badirela zehaztu gabe geratu diren beste kontu batzuk, hala nola, nortzuek jo beharko lukete, errepikatu beharko litzatekeen, zenbat ordaindu beharko litzatekeen, zein banda diren herrikoak, taldekideen %50 gutxienez izan behar diren herrikoak eta abar. Batzorde parekideak horiek eta beste hainbeste zehaztu beharko ditu. Azken batean, arazo asko eratorri egingo dira eta bandek beraiek argitu beharko dituzte zalantzak.

Bringas Egilior jaunak esan du jai hauek denon artean egiten direla eta jai-ekitaldi gehienak udalerriko erakundeek proposatuta gauzatzen direla.

Urtiaga Palacios jaunak galdetu du ea nola aukeratzen diren jaietako kontzertu nagusietan joko diren taldeak. Galdera hori egin du bere ustez, paralelismoa egin daitekeelako kontzertu "handi" horien eta herriko taldeek eman ditzaketenen artean, azken batean, herriko taldeen kasuan beste

kontratazio batzuetan ezartzen ez den protokolo bitxi bat ezartzen ari delako, bere ustez.

Bringas Egilior jaunak adierazi du kontzertu handien kontratazioa SKA eta jai-batzordearen esku dagoela.

Urtiaga Palacios jaunak esan du ez dirudiela jai batzordea denik jaietan joko duten taldeen erabakia hartzen duena.

Bringas Egilior jaunak esan dio aukera-kostu batez ari direla, dauden proposamen artean batzuk aukeratu behar direlako eta programatzaileek kartel orekatu bat egiten dutela, antzerki-programazioa egiten duten programatzaileek bezala. Ez da Kontseiluburuak hartutako erabakia.

Urtiaga Palacios jaunak Artekarrizta Kontseilu honetan egindako hausnarketa jasota utzi nahi izan du, esanez kasu batzuetarako lan egiteko modu jakin bat ezartzen dela eta beste batzuetarako beste modu bat, oso bestelakoa.

Azkenik, adostu da musika taldeen ordezkaria izango den plataforma behin eratuta, udal talde guztiek bilera bat egingo dutela plataformako kideekin.

Karmengo jaietako eraginari buruzko azterlana

Bringas Egilior jaunak jakinarazi du EH Bildu Udal Taldeak aipatutako azterlanari buruzko informazioa eskatu zuela. Horrela bada, hitza Moran Arostegi jaunari eman dio eta honek azaldu du berak, soziologiaz dakienaz baliatuta, 2007an Karmengo jaien eraginari buruzko lan bat egin zuela, baina 2010ean tokiz aldatu zirenez, desagertu egin zela. Hala eta guztiz ere, esan du saiatuko dela berau topatzen edo datuak jasotzeko metodoa, behintzat, berregiten.

Horrela bada, esan du bere lana zera izan zela, jaiak ekonomia arloan zein "itzulera" izan zezakeen aztertzea. Horretan jaiak ekarritako diru-sarrera zuzena ez ezik (adibidez, ostalaritza arloan sartzen zen dirua), udalerririk inguruan izan zezakeen nagusitasuna ere aztertu zuela, hau da, publizitatea erostean edo kokapena merkatuan. Horiez gain, autokontzeptuarekin lotutako beste bat ere landu zuen, ea zenbat kosta zitekeen herritarrak jaietz harro egotea hain zuzen.

Ildo horretan, kontsumoak aztertu ziren eta txosnetakoei, hornitzaileei, taberna batzuetako langileei eta abarrei galdetu zitzairen, zenbat jende ibiltzen zen bertan jakiteko. Kalkulua egin zen jasotako zarama edo erabilitako tren-txartel kopuruan oinarrituta edo merkatariari galdetuta, eta inbertsioa erabat errentagarria zelako ondorioa ateratu zen, bai herritarren gogobetetze mailari zegokionez, bai kontsumoari zegokionez, bai udalerrian nagusitasunak ekonomian eragindako "itzulerari" zegokionez eta bai autokontzeptu berari zegokionez. Dena delakoagatik uste izan zuten ekonomikoki herriari itzuli egin

zitzaiola inbertitu zuena. Azalpena amaituta, Moran Arostegi jaunak jakinarazi du ahal duenean berridatzi eta bidaliko duela.

Urtiaga Palacios jaunak esan du Karmengo jaiek ekarritako itzulera ekonomikoa aipatzen dela behin eta berriro, datuak ematen direla eta berak uste duela nonbaiten irakurrita duela inbertitutakoa bikoiztu edo hirukoiztu egiten dela. Gaineratu du Moran Arostegi jaunak esan bezala, egindako azterlana oso "etxekoa" dela. Horregatik proposatu du baloratu dadila azterlan gaurkotu eta serioago egitea, horretarako beren-beregi enpresa bat kontratatuz edo Behargintzaren bidez. Gainera, horrela jakin liteke zein oihartzun duen auzoetan.

Lucena jaunak esan du aurrekoaz gain, azter litekeela zein nolako eragina duten auzoetako jaiek herrian.

Bringas Egilior jaunak adierazi du ez dela objektiboki zenbatu auzoetan zein errentagarritasun ekonomikoa dagoen, nahiz eta gauza jakina den ondorio ekonomikoak auzoetara ere heltzen direla, badirelako herriko beste gune batzuetan egiten diren jarduerak: koadrilen bazkari edo afariak, batzordearen bazkaria, sardina eguna, zeinetan udalerrri osoko tabernak jartzen duten pailaren bat...

Bringas Egilior jaunak adierazi du orain beste lehentasun batzuk daudela eta ezin dela herrian zer nolako etekin ateratzen den konprobatzeko azterlan batean dirua gastatu.

Urtiaga Palacios jaunak aurrekontua eskatzea proposatu du azterlan honen kostua zein izan litekeen jakiteko eta zenbatekoa behin jakinda, egiteko aukera aztertzea.

3.- GALDE-ESKEAK

Urtiaga Palacios jaunak esan du urtarriletik aurrera informazio-batzordeak jendaurrean egingo badira, uste duela Artezkaritza Kontseiluak ere halaxe egingo direla.

Bringas Egilior jaunak erantzun dio esanez aztertu beharko dela, bere ustez, horrela izango dela baina hala ere, aztertu egin beharko dela.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, eguerdiko hamabiak laurden gutxi direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.